

Ulermenaren giltza



MIKEL IRIZAR
ANALISTA POLITIKOA

Duela hamabi urte hizkuntza arduradun nintzen Gipuzkoako Kutxan. Eta hitzun espezie interesgarria aurkitu nuen bertan: 80ko hamarkadan euskara ikasteko ahalegin serioa egin, emaitza biribiltzerik lortu ez, eta zekiten euskara ezkututzen zuten lankideak. Nolabait esateko, “Everestera ez bada, Igeldora zertarako?”. Denbora batez lan sistematikoa egin nuen haien ulermenaren balioaz jabetu zitezen, beraiek euskaraz egin gabe ere besteei euskaraz egitea ahalbidetzen zielako. Eta epe laburrean emaitza harrigarria gertatu zen: hainbat korapilo askatu zen, jarrera asko hurbildu, eta euskara gehiago erabiltzen hasi. Ulermenaren bertuteak.

Duela bost urte hizkuntza arduradun nintzen Gipuzkoako Aldundian. Eta ulermenaren gaineko informazioa biltzen hasi nintzen, giltza hori erabili nahian. Orduan egin nuen topo Aldahitz ikerketarekin eta Pello Jauregirekin. Hizkuntza ohiturak aldatzeko bideak ikeretzen ari zen 2010az geroztik, eta Eusle metodologiarekin esperientzia sistematikoak ari zen burutzen hainbat lantegitako taldetan. Kontua zen euskarazko hitzun irmoentzat esparruak antolatzea, eta denbora jakin batez neurtzea haien jardun euskaldunak taldearen ohituretan zuen eragina. Esperimentuan, ‘eusle’

ziren horiekin batera, eginkizun esanguratsua zuten ‘uzle’ zirenek, hau da, euskara ulertzeko gai ziren taldekideek. Bistan da gaur egungo ahobizi, belarriprest eta ariguneen aurrekariak direla.

Testuinguru horretan erronka bota nion Pellori: ulermenak erabileraren atea zabaltzen duenez, ikertu dezagun ea zenbat denbora behar den oinarriko ulermenera iristeko, eta zein metodologia landu behar den denbora hori ahalik eta laburren izan dadin. Erantzuna oraintsu iritsi da Soziolinguistika Klusterraren eskutik, eta libre dago hemen: www.soziolinguistika.eus/ulersaioak

Ikerketak bistaritzen du ulermena tresna oso ahaltsua dela euskararen biziberritze prozesuan jauziak eragiteko. Euskara ikasteko bidea ulermenetik hasita, 60 ordutan lortu daiteke oinarriko ulermen maila bat; eta, ondorioz, euskarari belarriak itxi ordez belarriak zorrozteko jarrera hartzea. Tarteko helmuga lorgarri batekin hasita errazagoa da oztopoak gainditzea eta, aurrera egin ahala, helmuga urrunagoak –ezagutzabilatzea.

Aurrerapauso handiak ekar ditzake, eta eskura daukagu. Gure hainbat eske-ma eta jarduera moldatu beharko genituzke ulermenaren giltza modu eraginkorrenean erabiltzeko. ●

TikTokerrak



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Heldu gehienok TikTok zer den ere ez dakigu. Baina 9 urtetik gorako ume/gazteak zoratuta dabilta aplikazioarekin, euren denborapasa gokoenetakoa delako.

Hainbestetan entzunda, deskargatu egin nuen. Edukiak ikusteko ez da izenik eman behar, gainera. Oso bideo laburrak agertzen dira, aliritziz, klik egin barik. Erpurua pantailan gora eta behera erabili nuen ordubete luzez arratsalde pare baten, telefonoaren bateriak nahikoa! esan arte.

Txiste, meme, challenge eta estiloko jolasak ikusi nituen, asko errepikatuta, batzuk aspergarriak, bat edo beste go-

gokoa. Voxeko larregi. Ia denak gaztelaniaz, gutxi batzuk ingelesez eta bat-edo euskaraz.

Horrelako giro jostarrietan sortzen dira hizkuntzari bizindarra ematen dioten argot eta gazte-hizkerak. Horregatik, gure gaztetxoak txundituta dituelako, ezinbestean TikToker euskaldunak behar ditugula uste dut. Baliabide guztiak (batez ere ludikoak) aprobetxatuta lortuko dugulako hizkuntza indartzea. Gainera, txikiek sortu eta erabiliko lukete, dibertituta. Birus sasoiaren euskara biralizatuko litzateke, eta jolasgai izango lukete.

Noiz TikTokertuko gara? ●